



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Portugaletako Udala

Portugaletako hezkuntza-aisialdiko elkarteek antolatutako udako jarduerak, udalekuak eta kanpamentuak garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileen hasierako onespena.

Portugaletako hezkuntza-aisialdiko elkarteek antolatutako udako jarduerak, udalekuak eta kanpamentuak garatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileen hasierako onespena

Udalbatzak, 2023ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkuran, honako hau erabaki zuen, besteak beste:

Lehenengoa: Hasierako onespena ematea Portugaletako hezkuntza-aisialdiko elkarteek antolatutako udako jarduerak, udalekuak eta kanpamentuak garatzeko dirulaguntzak emateko arauak, I. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Bigarrena: Arauak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, 30 egun balioduneko epean, hasierako onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta. Espedientea udalaren bulegoetan kontsulta daiteke, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egiteko modua izan dezaten. Eginez gero, Korporazioak ebatziko ditu. Gainera, arauen testu osoa udalaren webgunean argitaratuko da. Alegaziorik egiten ez bada, arauak behin betiko onartutzat joko dira, behin aipatutako epea igarota.

Ondoren, hasierako onarpenera emandako arauen testu osoa argitaratzen da.

Portugaleten, 2023ko martxoaren 6an. — Alkatea, Mikel Torres Lorenzo



ERANSKINA

**PORTUGALETEKO HEZKUNTZA-AISIALDIKO ELKARTEEK ANTOLATUTAKO
UDAKO JARDUERAK, UDALEKUAK ETA KANPAMENTUAK GARATZEKO
DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK****1. artikulua. — Xedea**

1. Araudi honen xedea da Portugaleteko Aisialdi Hezigarriko Elkarteek antolatutako udako jarduerak garatzeko dirulaguntzak ematea. Jarduera horiek honako hauek dira: udalekuak, udako kanpamendu finkoak eta tokiz tokikoak.

2. Izaera finko edo ibiltaria duten udako udaleku eta kanpalekuak antolatzean eta gauzatzean sortutako gastuek dirulaguntza jasoko dute honako baldintzak betetzen badituzte:

- Ekainaren 15etik irailaren 10era bitartean garatu beharko dira.
 - Genero-ikuspegia eta euskararen erabilpena sustatzea txertatu beharko dute.
 - Aitortutako astialdiko hezitzaileen prestakuntzarako edozein eskola ofizialek luzatutako tituludun zuzendaria izatea, edo baliokidea den aisialdi edo animazio sozio-kulturaleko titulua edukitzea. Tituluduna kanpalekuak irauten duen bitartean bere funtzioetan jardungo da eta ezin izango da aldi berean bi ekitalditan aritu.
 - Bertaratutako begirale guztiak arestian aipatutako eskolek luzatutako tituludunak izan behar dira edo baliokidea den aisialdi edo animazio soziokulturaleko titulua eduki behar izango dute. Begiraleak kanpalekua irauten duen bitartean jardungo dira. Kanpaleku edo udaleku txanda bakoitzean, hamar parte-hartzaileko begirale bat egongo da gutxienez.
 - Begiraleen % 100 borondatezkoak izan behar dira.
 - Sukalde, laguntzaile, intendentzia eta abarretako langilegoa ez da begiraletzat hartuko.
 - Kanpaleku finko eta udalekuetan parte hartzen dutenak 7 eta 25 urte bitartekoak izango dira.
 - Hiru eguneko edo bi gaueko gutxienerako iraupena izango dute.
 - Udaleku edo kanpaleku finkoen kasuan, 12 parte-hartzaile edukiko dituzte gutxienez, minusbaliotasun taldeen kasuan ordea, gutxienerako asistentzia 6 parte-hartzaileetakoa izango da. Era berean, kanpaleku ibiltarietan gutxienerako asistentzia hori 8 eta 4ra jaitsiko da hurrenez hurren.
 - Neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonia, kolonia irekien, auzolan-degien eta ibilaldietako kanpaketei buruzko Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 170/1985 Dekretuak dioena betetzea.
3. Araudi honen aplikazio eremutik kanpo espresuki geratuko dira:
- a) Denbora-pasa bidaiak eta ikas-bidaiak.
 - b) Udako kirol campusak.
 - c) Oro har, araudi honetako 2. artikulua betetzen ez duten elkarteek bultzatutako programa guztiak.

2. artikulua. — Subjektuak

1. Araudi honek arautzen dituen dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte haur eta gazteentzako aisiako eta astialdiko heziketa esparruan lan egiten duten eta honako baldintzak betetzen dituzten elkarteek:

- Kokapena, jarduketa-eremua eta egoitza Portugaleten izatea.
- Estatutuek beren-beregi jaso beharko dute haur eta gazteen alorrean garatzeko xedea dutela.
- Irabazi asmorik gabeko erakunde moduan eratuak izatea.

2. Ezin izango dira onuradunak izan azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aurreikusten diren baldintzaren bat betetzen dituzten elkarteak.

**3. artikulua. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Elkarte bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du, eta bertan, dirulaguntzaren xede diren jardueren txandak jasoko dira. Oinarri-arau hauen arabera, elkarte eskatzaileak antolatzen duen eta oinarri-arau hauen 1.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituen kolonia, udaleku finko edo bolante bakoitza da txanda. Interesa duten elkarteek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Udaleko Erregistro Orokorrean edo Herritarrentzako Informazio eta Arretarako Bulegoan, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloari zuzenduta:

- a) Eskabide-orria inprimaki ofiziala aurkeztuta (I. Eranskina).
- b) Eskabide-orria dakarren txanda bakoitzeko:
 - II. Eranskina, behar bezala beteta, bertan eskatzen den dokumentazioa atxikita.
 - Kanpaleku edo udalekuaren kokapenaren eta sarbideen plano edo krokis zehatza. Kanpaleku ibiltarien kasuan, jarraituko den ibilbidea zehaztu beharko da gaua igaroko den lekuak aipatuz.
 - Programa-proiektuaren oroitidazkia: jarduerak, helburua eta ebaluazioa.
 - Jardueran euskararen erailera sustatzeko burutu diren ekintzen oroitidazkia.
- c) Balantze ekonomikoa:
 - Diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza, aurkeztutako plana gauzatze-ko elkarteak berak aurreikusi dituen finantziazko baliabideak adierazi beharko ditu (bazkide kuotak, hitzarmenak, babesleak, ondarea eta orokorrean elkarteak jarduera gauatzeko sor ditzakeen errekurso ekonomikoak). Diru sarre-
ren edo udalaz gaineko eremuko administrazioen ekarpenak direla eta (Eusko Jaurilaritza edo Aldundia), derrigorrez zehaztu beharko da azken ekitaldian jasotako laguntza. Diru-sarrera edo gastu gisara aurreko urteko soberakina edo defizita kontsignatu behar da.
 - Gastuen taula xehatua zeinetan fakturaren data eta zenbakia, hartzekoduna bere IFZrekin, kontzeptua eta zenbatekoa agertu beharko baitira. Aldi horretan eginiko gastuak egiaztatze-ko fakturen fotokopia zenbakidunak atxikiko dira. (VII. eranskina).
 - Egindako gastutzat joko da justifikatzeko aldia amaitu baino lehenago dagoeneko ordainduta dagoena. Hori dela eta, ez dira onartuko argi eta garbi proiektuaren gastua identifikatzen ez den ordainagiririk.
 - Gehienez ordaindu beharreko zenbatekoa, eskudirutan, 300 eurokoa izango da.

Ordaintzeko erak

- a) Ordainketa transferentziaz edo banketxe-helbideratzearen bitartez

Ordainketa egiaztatze-ko agiri hauetariko bat aurkeztu beharko da: banketxearen transferentziaren aginduaren frogagiria edo eginiko helbideratzearen jakinarazpena.

- b) Eskudirutan ordaintzea

Salbuespen gisa, eta gastuen zenbateko txikia dela eta, faktura osoen bidez justifikatzea zaila bada, faktura sinplifikatuekin (tiketa) ordeztu ahal izango dira, entitatearen ziurtagiri batekin batera, gastu horiek entitateak emandako dirulaguntzaren kargura egin dituela adieraziz, eta horien jatorria eta dagozkien kontzeptuak zehaztuz.

Fakturazio-erregelamenduak esaten dion bezala, «Kutxako tiketa» edo «faktura sinplifikatua» k «eskudirua» adierazpena eta eragiketaren data izan behar ditu, eta horrek egiaztatuko du ordainketa justifikazio-epearen barruan egin den ala ez.

- A) Kontratututako erantzukizun zibileko aseguruaren kopia.
- B) Zinpeko aitorpena egiaztatze-ko elkarteak ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean, horrela izanez gero, dirulaguntza publikoa jasotzeko aukera galduko bailuke. Halaber, bere jarduna debekatzen duen lege-ko agindupean ere ezin



- da egon otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik (III. eranskina).
- C) Zinpeko aitortpena, hauxe aitortzen duena: Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena betetzen dutela (VI. eranskina).
- D) Eskatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko betebeharrak fiskalak eguneratuta dituelako egiaztagiria aurkeztuko du. Zerga-betebeharrak Portugaleteko Udalarekin baka-
rrik duten elkarteek kasuan, eskabide-orrian horren berri emango dute. Horrela izatekotan, Udalak berak aurkeztuko du ofizioz aipatutako ziurtagiria.
- E) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiria, berarekiko betebeharrak eguneratuta dituela egiaztatzeko.
- F) Udalaren Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Sailak ondoko agiriak edo ziurtagiriak eskueran ez baditu edo aldatarik egin bada, aurkeztu egin beharko dira. Bestela, zinpeko aitortpena egin behar da egiaztatzeko lehen ere aurkeztu direla (IV. eranskina):
- Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
 - Elkarre eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
 - Hartzekodun fitxa zeinetan elkarre eskatzailearen banku-datuak eta -helbide-
ratzea eguneratuta agertuko baitira identifikazio fiskaleko txartelaren kopiare-
kin batera (V. eranskina).
- G) Udaleku edo kanpaleku finkearen kasuan, dagokion administrazioak (udal nahiz lurralde mailakoa) igorrita, kanpalekua edo udalekua gauzatu eta non garatu den dioelako ziurtagiarekin batera, parte-hartzaileen zerrenda (izena, bi abizen, jaiotze-data eta helbide osoa, udalekuak direnean) aurkeztu beharko dute.
- H) Kanpalekua tokiz tokikoa denean, parte-hartzaileen zerrenda zeinetan izena, bi abizen, jaiotze-data eta helbidea agertu beharko baitira. Gauda igaro den udale-
rrietako udalek zigilatuta egon beharko du.
- I) Guraso edo tutoreei bidalitako dokumentazioaren ale bat argitaratutako iragar-
pen materialarekin batera.

4. artikulua. — Datu babesa

Deialdi honetako informazioa eta datuak Izaera Pertsonaleko Datu Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak babesten ditu.

5. artikulua. — Epeak eta aurkezteko tokiak

- Eskuerak egiteko eredu arautua behar bezala beteta aurkeztu beharko da (oina-
rri-arauon 1. eranskina), Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Solar plaza z. g.), as-
telehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara, edo Herritarren Arretarako Informazio
Bulegoan, (San Roke plaza z. g.) astelehenetik ostiralera, 14:30etik 20:15era eta
larunbatetan, 9:00etatik 13:45era.
- Eskuerak aurkezteko epe-muga gauden urte bakoitzeko urriaren 4a izango da. No-
lanahi ere, egun hori balioduna izango ez balitz, data horretatik aurrera zenbatzen
hasita, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.
- Dirulaguntza izapidetzeko eranskin eta agiri guztiak webguneotan daude eskura-
garri: www.portugalete.org eta www.juventudportugalete.org.
- Eskuerak aipatutako epetik kanpo aurkezteak, eskaera horien gaitzespena dakar
eta horiek beraiek izapidetu barik artxibatuko dira.
- Eskuerak eskatutako datu barik jasotzen badira edo azaldutako agiriekin ez ba-
datoz, interesatuei dei egingo zaie 10 eguneko epean aurkitutako akatsak zuzen-
tzeko. Era berean, ohartaraziko zaie zuzenketa egin ezean, ulertuko dela eskaera
egiteko nahiari uko egin diola.

**6. artikulua. — Dirulaguntzaren zenbatekotasuna: hainbanaketa**

Udaleku eta kanpalekuak finantziatzeko dirulaguntzak honako eran kuantifikatuko dira:

1. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 300 euro elkarte antolatzaile bakoitzari.
2. Kantitate finko baten esleipenaren bitartez, 2 euro, gau eta udaleku edo kanpalekuko haur edo gazte parte-hartzaile bakoitzeko, zuzendaria, begiraleak eta beste mota bateko langileak barne daudelarik.
3. 200 euro euskara erabiltzeagatik txanda bakoitzean jardueren komunikabide gisa edota euskara eta euskal kultura sustatzeko jardura berariazkoen antolaketan.
4. Justifikazioaren fakturak garbitu ondoren sortutako gastuen portzentaia hurrengo moduan kalkulatu da:
 - a) Artikuluan zehazten den aurrekontu mugari kenduko zaio, onartutako entitate eskatzaileei arestian aipatutako kontzeptuen arabera emandako kantitateak.
 - b) Onartutako entitate eskatzaileen fakturen arazketa egin ondoren gastuak gehituko dira.
 - c) B ataleko emaitzaren arabera a) ataleko emaitzako kopuruak suposatzen duen ehuneko portzentaia kalkulatu da.

Hala ere, eskabide bakoitzak ezingo du lortu justifikazioan jardueraren gastu gisa aurkeztutako fakturen balantze araztuaren %35 baino gehiago.

7. artikulua. — Izapidetza eta ebazpena**Izapidetza**

- Dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek egingo dio organo emaileari, instrukzio-organoaren bitartez.
- Azken hori Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloa izango da.
- Portugaleteko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloari dagokio instrukzio-organoa den aldetik, aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea. Izan ere, haiek egoki ulertzeko eta ebaluatzeko bidekoesten duen behar beste agiri edota informazio eskatu ahalko du.
- Espedientearen instrukzio-organok ofizioz egingo du datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatze egoki bidezkoesten dituen izapideak. Alta, datuon arabera emango da ebazpen-proposamena.
- Behin eskaera onartuta, espedienteari hasiera emango zaio dirulaguntzaren izapideak egite aldera.
- Onartutako eskaera aztertu eta ebaluatu ondoren, instrukzio-organok dagokion txostena eta ebazpen-proposamena egingo ditu, eta organo emaileari helaraziko dizkio, eskatutako dirulaguntza eman edo ukatu den berariaz adierazita, zenbatekoa den adierazita.
- Kide anitzeko organoak, deialdia arautzen duten oinarriak eta instrukzio-organoren ebazpen-proposamena aztertu ondoren, eskabideak ebaluatuko ditu eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan aipatzen den nahitaezko txostena egingo du.

Kide anitzeko organoaren kideak ondoko hauek izango dira:

- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Zuzendaritza, presidente gisara.
- Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza, presidentearen ordezkari gisara.
- Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Arloko administraria, idazkari gisara.
- Parte-Hartze eta Gizarte Berrikuntza teknikaria, idazkariaren ordezkari gisara.
- Kultura Arloko teknikaria, kide gisara.
- Euskara Arloko teknikaria, kide gisara.

Kide anitzeko organoa balio osoz eratuko da Presidentetzan eta Idazkaritzan dauden pertsonarekin edota kideen erdiekin.

**Ebazpena**

- Ebazteko organo eskuduna Alkatetza izango da. Eskaerak erregistro-ordena zorrozean ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera, horretarako bideratutako partida ekonomikoan dagoen aurrekontu-kreditua agortu arte.
- Hartzen den ebazpenean zehaztuko da eskatutako dirulaguntza eman den edo, hala badagokio, ukatu den, eta, hala badagokio, onuradunaren izen soziala eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko dira. Bigarrenen kasuan, sozietatearen izena eta ukatzeko arrazoiak jasoko ditu. Dirulaguntza emateko ebazpena eskatzaileei banan-banan jakinarazteaz gain, Portugaletako Udaleko Garrantasunaren Atarian argitaratuko dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 55.h) artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Prozedura dagokion deialdian ezarritako eguna baino lehen ebatzi eta jakinaraziko da. Epe hori igaro eta ebazpen espresua jakinarazi ez bada, erakunde eskatzaileak ulertu beharko du bere eskaera ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe geroago berariaz ebaztea.

8. artikulua. — Konpromisoak eta betebeharrak

1. Onuradunak parte-hartzaileen eskabide-orrietan eta publizitatean Portugaletako Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Saileko lankidetzak aipatu beharko du.
2. Jarduera egiten den bitartean, autonomia-erkidego bakoitzean horrelako jardueri buruzko araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia eduki beharko dute.

9. artikulua. — Finantzaketa

Oinarri-arau hauek betetzeko xedearekin, finantzaketa deialdi bakoitzean ezarriko den euroko gehieneko aurrekontu kredituari kargatuko zaio, 07 3342 481.01 aurrekontuko partidari kargatuko zaiolarik.

Aipatutako dirulaguntzak beste entitate publiko edo pribatuetatik eratorritako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo errekurtsioekin bateragarriak izan ahal dira, inolaz ere gainfinantzaketa eman daitekeelarik.

Dirulaguntzen aldi berekotasuna dela eta gainfinantzaketa ematen bada, onuradunak Portugaletako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, beti ere Udalak finantziatutako totalaren zenbatekoari emandakoaren proportzioan.

10. artikulua. — Zehatzeko araubidea

Arau-hauste eta zehapen erregimena, azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legeko IV. Tituluarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/98 Legearekin bat etorriko da.

12. artikulua. — Araubide juridikoa

Araudi honek aipatzen dituen dirulaguntzak, araudiak berak aurreikusitakoaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Orotariko Legearekin bat etorriko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Honako oinarri-arauak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz gain, udal iragar-ki-taulan eta www.portugalete.org webgunean egongo dira ikusgai.

**I. ERANSKINA****UDALEKUAK ETA KANPALEKUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZA
JASOTZEKO ESKABIDE-ORRIA, PORTUGALETEKO UDALAREN HEZKUNTZA,
GAZTERIA ETA KIROL SAILARI ZUZENDUA**

IFK
Entitatearen izena
Helbide soziala eta telefonoa
Udalerrria eta probintzia
Presidentearen izen-abizenak eta NAN

Portugaleteko Udaleri eskatzen dio dirulaguntza emateko udaleku, kanpaleku finko edo tokiz toki-koen honako txanda hauetako baten kofinantziatorako, araudiak zehazten dituen ezaugarriak dituztealrik.

Txanda	Jarduera mota	Datak

Elkarteak bere kargu hartzen du jarduera burutzearen erantzukizun osoa. Halaber, bermatzen du jasotako kantitateak erabiliko direla kanpalekuan edo udalekuan parte hartzen dutenek ordaindu beharreko kuota gutxiago ordain dezaten dagokien heinean.

Era berean, konpromisoa hartzen du, diruz lagundutako jarduera burutzean ezer gertatuz gero, horren berri emateko eta, gasturik ez badago, dirulaguntza itzultzeko.

Portugalete,

(zigilua eta sinadura)



II. ERANSKINA

JARDUERAREN TOKIA: UDALEKUA EDO KANPALEKU FINKOA*(txanda bakoitzeko fitxa oso bat bete beharko da)*

Kanpalekuaren tokia	
Herria	Udalerria
Hurbilen dagoen udalerria eta zenbat kilometrotara dagoen	
Abisuak emateko telefonoak	
Zein egunetan irteten den	Zein egunetan itzuli den

JARDUERAREN TOKIA: TOKIZ TOKIKO KANPALEKUA

Erantsi ibilbide zehatza argi adierazita non egingo duten lo.

ARDUNADUNAREN ZERRENDA

NANaren fotokopia eta titulua.

Zuzendariaren izen-abizenak		
Adina:	NAN:	Tituluak:
Helbidea:		
Telefona:		

BEGIRALEAK

NANaren fotokopia eta titulua.

Izena	Abizenak	Adina	Tituluak

BESTE ARDURADUN BATZUK

(NANaren fotokopia eta titulua)

Izena	Abizenak	Adina	Tituluak

Halaber, elikagaien manipulatzailearen, sorosleen edo antzekorik balego, haien titulazioen fotokopiak atxiki beharko lirateke baita jarduerak garatzeko giza-baliabide nahiz profesional ororenak ere.

PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDATA

Mutiko kopurua	Neskato kopurua	Guztira
Gutxienezko adina		Gehienezko adina

[illegible]



10. orr.

[illegible]



III. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

Aitorlea:

NAN:

Elkartea:

Elkartean duen kargua:

Elkartearen IFK:

Nik, aitorleak, zin egiten dut elkarte hau ez dutela zigortu administratiboki edo zigor-kodean, otsailaren 18ko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005eko Legeari jarraiki, sexu-diskriminazioagatik edo Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren dirulaguntzetarako beste deialdi batzuetan parte hartzeagatik.

Portugalete,



IV. ERANSKINA
ZINPEKO EDO ARDURAPEKO AITORPENA

Elkarte eskatzailea	
Izena	IFZ
Eskabidea sinatzen duenaren izen eta abizenak	NAN
Azalpena	
Goian aipaturiko elkarte eskatzailearen ordezkaria naizen aldetik, zin egiten dut agiriok aurkeztu direla, ez dela aldaketarik egin eta indarrean darraitela. Marka itzazu agiriak	
☐	Elkarte eskatzailea sortu zuteneko estatutuak edo eskritura.
☐	Elkarte eskatzailearen IFZren fotokopia.
☐	Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroko inskripzioaren fotokopia.
☐	Hartzekodunaren fitxa (V.eranskina)

Portugalete,



V. ERANSKINA / ANEXO V

DATUEN ALTA EDO ALDAKETA / ALTA O MODIFICACIÓN DE DATOS

Pertsona edo entitate interesatuaren ezagupenerako datuak
Datos identificativos de la persona o entidad interesada

NAN / IFK

DNI / CIF

Abizenak eta Izena / Sozietaren izena

Apellidos y nombre / Razón social

.....

Datos Bancarios
Banku Datuak

Bankua / Banco

Sukurtsala / Sucursal

K.D. D.C.

K/Korrontea C/Corriente

Kontu korrontearen jabea / Titular de la cuenta

Sólo para cuentas corrientes en el extranjero // A rellenar por el banco
Atzerriko diru-kontuetarako soilik // Bankuak bete behar

IBAN

Interesatuaren adostasuna
Conformidad de la persona interesada

Bankuaren adostasuna
Conformidad del banco

Portugalete,

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa bete nahian jakinaratzen dizugu zeure datuak «Terceros Contabilidad» izeneko fitxategian sartu eta erabiliko ditugula. Futxategi horren ardura Portugaleteko udalari dagokio eta udal kontularitza eta diru-sarreraren, gastuen, abalen eta fiantzen aurrekontua egiteko eta estatistikarako erabiltzen duela. Interesatuak datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta aurkatu ahal izango ditu Portugaleteko udaletxeko Erregistro Nagusian: Solar plaza z.g. 48920-Portugalete.

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa de que sus datos personales serán incorporados y tratados en el fichero «Terceros Contabilidad», del que es responsable el Ayuntamiento de Portugalete, cuya finalidad es realizar la contabilidad municipal y el presupuesto de ingresos, gastos, avales y fianzas y fines estadísticos. La persona interesada podrá ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en el Registro General del Ayuntamiento: Plaza del Solar s/n, 48920-Portugalete.

PORTUGALETEKO UDALEKO DIRUZAINZTA
TESORERÍA DEL AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE



VI. ERANSKINA
ZINPEKO AITORPENA

Elkarteko presidentea:

NAN:

Elkartea:

Elkartearen IFK:

Nik, elkarteko presidentea naizen aldetik, zin egiten dut hala elkarteko begirale guztiek nola elkarteko beste motatako langileek betetzen dutela Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena.

Portugalete,

**ESKAERA-ORRIARI ERANSTEKO AGIRIAK**

Entitate interesadunek eskaera-orriari agiriok erantsi behar dizkiete:

- ☐ Eskaera-orria inprimaki ofiziala aurkeztuta. (1. eranskina).
- ☐ Eskaeran sartzan den txanda bakoitzeko: II. eranskina, eranskinak dakarren dokumentazioa-rekin batera. Kanpaleku finkoaren edo udalekuaren kokapenaren plano edo krokis xehetua atxikita baita hara iristeko modua ere. Kanpalekua toki batetik bestera badoa, ibilbide zehatza lo egiteko tokiak beren-beregi aipatu behar direlarik.
- ☐ Eskaeran sartzan den txanda bakoitzeko, dirulaguntzaren xede den kanpalekuan eginiko jardueren oroitidazkia, helburuak eta ebaluazioa dakartzalarik.
- ☐ Eskaeran sartzan den txanda bakoitzeko, jardueran euskararen erabilpena sustatzeko eginiko jardueren oroitidazkia.
- ☐ Kontratututako erantzukizun zibileko aseguruaren fotokopia.
- ☐ Elkarteari isuniki jarri ez zaiolako zinpeko aitortpena (3. eranskina).
- ☐ Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.
- ☐ Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko betebeharrak egunean dituelako ziurtagiria.
- ☐ Inskripzio-orria, gurasoei bidalitako agiriak eta publiziterako materiala.
- ☐ Zinpeko aitortpena, haxe aitortzen duena: Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legearen 13. artikulua dakarrena betetzen dutela (VI. eranskina).
- ☐ Behar izatekotan, zinpeko aitortpena (IV. eranskina).
- ☐ Behar izatekotan Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroko inskripzioaren fotokopia.
- ☐ Behar izatekotan, elkartearen identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- ☐ Behar izatekotan, hartzekodunaren fitxa zeinetan entitate eskatzailearen datuak eta bankuko helbideratze-datuak ere agertzen baitira (V. eranskina).
- ☐ Eskaeran agertzen diren jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa.
- ☐ Gastuen taula xehetua, fakturaren data eta zenbakia, akreditatzailea (IFZ, kontzeptua eta zenbatekoa), zenbakitutako fakturen fotokopia eta dirulaguntzaren xede den kanpaldiari edo koloniari soilik dagozkionak. Ezin izango da kanpatzeko edo koloniako gastu gisa sartu etxearen edo lursailaren alokairua eta abar, erakundearen edo elkartearen jabetzakoa denean, edo elkarte horren mendeko erakunde batena denean edo alokairu-kontraturik ez dagoenean (VII. eranskina).
- ☐ Udaleku edo kanpaleku finkoaren kasuan, kanpalekuaren edo udalekuaren ziurtagiria, kokaturik egon deneko administrazioak (udalekoa edo lurraldekoa) izapidetua, parte-hartzaile kopurua ere zehaztuta dagoelarik.
- ☐ Tokiz tokiko kanpalekuaren kasuan, parte-hartzaileen zerrenda non agertu behar baitira izena, abizen biak, jaiotza-data eta helbide osoa. Lo egiten duteneko tokietako udalek zigilatu behar dute agiria.